

AL BAKER'S SALOON

Mendebalde urruneko magia ikuskizuna





AL BAKER'S
SALOON

AL BAKER'S SALOON

AL BAKER-en gaizkile banda prest dago Saloonera hurbiltzen diren erbestetar inozoak lumatzeko. Mendebalde urruneko tankera hutsean, dirua, kartak eta endalarra izango dira magia ikuskizun honen osagaiak. Sartzera ausartuko zara?



Gertuko magiaren mundua ikuslegoarengana hurbiltzeko asmoarekin, Tor eta Txoborro mendebalde urruneko legendetan murgiltzen dira saio magiko guztiz ezberdina sortuz. Mendebaldeko saloi mitikoen giroa, kartak, mahai azpiko jokoak, iruzurtiak eta trampatiak... antzezleku ezin hobea eskaintzen dute ezaugarri hauetako ikuskizuna gauatzeko.



ANTZEZLEAK

Txoborro (magoa)

Tor (magoa)

Alfonso Diez (aktorea)

IDEIA ORIGINALA

Aitor Bilbao eta Iñigo Gabilondo

DISEINU ETA ARTEA

44 Grapas

ARTE ZUZENDARITZA

Iban Gaztanbide

ZUZENDARITZA LAGUNTZAILEA

Marta Gutierrez-Solana

GIDOIA

Iñigo Gabilondo eta Aitor Bilbao

ARGAZKIAK

Oneka Tirado





ISTORIA



Al Baker, bere “negozioak” dibertsifikatzeko asmoarekin, Etchegarairen Saloon ospetsua eskuratzea erabaki zuen. Berau lortzeko, azpijokoz betetako poker-partida bat antolatu zuen bertan. Partida hura urte-liburuetan agertuko zen lauko bikote ziztrin batekin irabazi izanagatik. Ordutik hona lauko bikotea Bakerren jokaldia bezala ezagutzen da eta Etchegarairen saloona Al Bakerren saloona bezala.




AL BAKER'S SALOON



Magia eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun hau mendebalde urruneko Saloon eramangarri baten barnean sortzen da. Saloonaren bestaldean dagoen "amarrua" goitik-behera apaingutako $6 \times 4 \text{ m}^2$ -ko karpa bat da.

Karpa homologatu honen funtsa aluminio sendotua duen sistema tolesgarri bat da. Bere egitura $50 \times 2 \text{ mm}$ -ko zutabe teleskopikoetan oinarritzen da.

Saloonak 50 pertsonentzako edukiera du.



AL BAKER'S SALOON

Lona gainean inprimatutako 40 metroko muralak Al Baker's Saloon-a barrutik eta kanpotik birsortzen dute. Bertako ilusio optikoen sakontasunak beste mundu batera murgiltzen zaituzte erabat.





Ikuskizuna Saloonaren inguruan hasten da, barrura sartu baino lehen. Cowboy batek ibiltari inozoak erakarri eta sartzera animatuko ditu. Bitartean, sarbidea sarreraren bitartez kudeatuko du.

Behin Saloonera sartuta, ikuslegoak ikuskizun umoretsuaz, parte-hartzaileaz eta magiaz beteaz gozatuko du. Edozein adinetarako ikuskizuna da eta 20 minutuko saioak egiten dira ordu erdiro.



GAIZKILE BANDA



EVERETT

Alfonso Diez Arteagagoitia, 1968

Antzerkia, zinea, clown, magia eta inprobisazioa ikasi ditu. 27 urteko esperientzia zabala du bai antzerkian (Erre produkzioak, Txalo, Pabellón 6, Arriaga antzokia, Arimaktore...) zein ikus-entzunezkoan (Goenkale, Mugaldekoak, Qué vida más triste, Zoombados...).

TOR

Aitor Bilbao, 1982

20 urte baino gehiagoko ibilbide luzean zehar mago profesional bezala 1000 emanalditik gora izan ditu dagoeneko eta esperientzia zabala du telebistan, ETBn 300 saiotik gora alegia (3txulo, Sorgintxulo, Magoak...).

TXOBORRO

Iñigo Gabilondo, 1983

Bere ibilbide profesional luzean ehunka emanaldi izan ditu antzokietan, jaialdietan (Umore Azoka, Kalealdia, Magialdia...) eta telebistan (Abierto por vacaciones, Magoak...).

JOSE RAMÓN

Jose Ramón, 2018

2 oiletegitatik kanporatua izan ondoren bere portaera txarra dela eta, Jose Ramón Al Baker-en gaizkile bandan sartu zen 44 egun besterik ez zituela. Odolzalea eta errukigabekoa izateaz aparte, trapuz egina dago.





EZAUGARRIAK ETA BEHARRAK

MUNTAKETA
2 ortu eta erdi

DESMUNTAKETA
Ordu eta erdi



KARPAREN EDUKIERA
50 pertsona. (12 urte baino gutxiagoko haurrak nagusi baten laguntzarekin etorri beharko dira).

KORRONTE-HARGUNEA
220V eta 1.500W-ko korronte-hargunea gertu.

KARGA ETA DESKARGARAKO FURGONETA HURBILTZEKO AUKERA
2 aparkaleku gertu

BEHARREZKO AZALERA MINIMOA
 $8 \times 7 \text{ m}^2$ -ko zoru lau eta horizontala.

BEHARREZKO ALTUERA MINIMOA
4 metroko altuera minimoa

Esparru itxi bat izanik, bero handiko egunetan itzalpean muntatzea gomendatzen da.

AL BAKER'S SALOON

